



Zortzi finalistak prest Bizkaiko finalerako

Abenduaren 20an jokatuko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala, 17:00etatik aurrera, Casillan; Arantza Plazak jantziko dio txapela txapeldunari.

Dena dago ia prest. Azken ukituak baino ez dira falta zapatu arratsalderako den-dena prest egon dadin, eta horretan ari dira buru-belarri lanean antolatzaileak.

Casillan izango da aurten lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finala, abenduaren 20an, 17:00etatik aurrera. Zortzikote hau heldu da finalera: Aitor Bizkarra Ruiz, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Gorka Pagonabarraga Agorria, Jone Uria Albizuri, Oihana Bartra Arenas, Onintza Enbeita Maguregi, Txaber Altube Sarrionandia eta Xabat Gallettebeitia Abaroa. Eta zortzi buru horietako bati jantziko dio txapela Arantza Plaza Zamorak. Bizkaiko bertsozale elkarteak urte luzeetan Plazak bertsolaritza irakasten egindako beharra saritu gura izan du aitortza eta omenaldi honekin.

Protagonista horiez gain, Idoia Anzorandia Kareaga eta Igor Menika Bengoetxea ariko dira gai-jartzaile beharretan zapatuan. Epaileak, ostera, hurrengoak izango dira: Ainhoa Arregi Elosua, Ander Arrien Aspiazu, Garazi Mendoza Agirre, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Marta Ortiz Mateo, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Miriam Juaristi Urizar. Idazkari beharretan Itziar Basterretxea Olarreaga eta Itxaro Juaristi Olaetxea arituko dira.

Hainbat ohar finalerako

Finaleko sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian daude eskuragai. Zapatuan oraindik sarrerarik geratuko balitz, txarteldegia zabalduko litzateke 15:30ean.

Ordu berean zabalduko dira Casillako ateak. Bizkaiko bertsozale elkarteak sasoiz joateko gomendioa egin gura die bertsozaleei, jende asko batuko delako eta azken orduko trabarik ez egoteko.

Casillara heltzeko garraio publikoan joateko gomendioa luzatu da: Bilbora heltzeko dauden ohiko garraibideetan, Bilboko metroan (Indautxuko geltokia, Areitza doktorearen atea), edota zenbait udal zein bertso eskolek antolatutako autobusetan joan zaitezke.

Azkenik, azken urteetan egin den moduan umeen gunea egongo da finalean. Zerbitzua erabiltzeko www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa atarian dagoen formularioa bete behar da.

Finalera bertaratu ezin dutenek zuzenean jarraitzeko aukera izango dute bertara etorriko diren hainbat hedabideen emisioen bidez; tartean, Etb1ek zuzenean eskainiko du finala 16:45etik aurrera, Ilaski Serranorekin eta Ainhoa Urienekin. Biharamunean Hitzetik Hortzera berezia eskainiko da finalaren laburpena eta txapeldunaren elkarrizketarekin.

Eskerrak, taldeari

Bizkaiko bertsozale elkarteak eskerrak eman gura dizkie txapelketa osoan zehar beharrean ibili diren guztiei: bertsolariei, talde-antolatzaileko kideei, komunikazio taldeko kideei, gai-jartzaile taldeari, epaile taldeari, bertso eskolei eta borondatezko beharrean ibili diren guztiei. Baita, zelan ez, astero areto eta frontoiak bete dituzten bertsozale guztiei ere.



Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalistak, aurkezpenean. // XDZ



**XABAT
ILLARREGI MARZOL**

IRUÑEA. 2025-11-29

**NAFARROAKO BERTSOLARI
TXAPELKETAKO TXAPELDUNA**

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak

Familiari eta lagunei
hau zuen buruan dago
bertso ikasleei besarkada bat
segi bertsotan luzaro
eta Joanes izango dira
halako egun gehiago
ta alderantziz tokatuko da
hortaz oso ziur nago
baina herria eta hizkuntza
ez bihurtzeko bi bando
esna gaitezen eta mugitu
gure mingain, gure zango
lo hartuz gero lur honek ez du
hizkuntzarik eramango
ta hizkuntzarik ez duen herri
bat ez da herri izango.

Urtarrilaren 18an aurkeztuko da Arabako Bertsolari Txapelketa

Otsailaren 7an hasiko da txapelketa eta finala martxoaren 28an izango da Gasteizko Europa Jauregian; urtarrilean emango dituzte xehetasun gehiago.


Txapelketaren kanporaketa fasea amaituta, prest daude Arabako Bertsolari Txapelketara sailkatu diren 18 bertsolariak. Udazkenean jokatu den kanporaketa fasetik 13 dira txapelketara sailkatu direnak; beste bostak, 2024ko txapelketako finalean kantatu zuten bertsolariak izango dira.

2026ko txapelketak hiru fase izango ditu: lehen fasean hiru saio jokatu dira, bi finalurreko etorriko dira gero, eta, azkenik, finala. Saioak sei bertsolarikoak izango dira. Txapelketa

otsailaren 7an hasiko da eta martxoaren 28an izango da finala, Gasteizko Europa Jauregian.

Aurpezkezena, urtarrilaren 18an

Arabako Bertsolari Txapelketa urtarrilaren 18an, igandea, aurkeztuko da Gasteizen, Arabako Bertsozale Elkarteen Batzar Orokorrekin batera. Hantxe eskainiko da informazio gehiago: saioak non eta noiz izango diren, zein bertsolarik kantatuko duen edota sarrerak nola eskuratu.



Gasteizko kanporaketa saioan kantatu duten bertsolariak.. //XDZ

Pizkunde berri baten lehen txinparta, abenduaren 27an

Bilbao Arena euskaltzalez betetzeko deia egin du Euskalgintzaren Kontseiluak; abenduaren 27an, 17:00etan hasiko da ekitaldia. Sarrerak eskuragai daude www.pizkundera.eus atarian.

Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, Euskalgintzaren Kontseilua osatzen duten eragileok adierazpen bateratua irakurri zuten. Bilbao Arenan izan zen ekitaldia, abenduaren 27ko ekitaldia egingo den lekuan bertan.

Irakurketan euskararen normalizazioak eta biziberritze prozesuak bizi duen kinka aipatu da eta hura gainditzeko bidearen proposamena azaldu da beste behin. Larrialdi linguistikoaren diagnostikoa berrestearekin batera, biziberritzerako erronka nagusiak zerrendatu dira, larrialditik indarraraldirako bidea egiteko. Bide horretarako, bi konpromiso nagusi hartu dira: hizkuntza politiketako jauzia bultzatzea eta euskaltzaletasuna indartzea.

Bigarren horri begira, ekitaldia antolatu du Kontseiluak abenduaren 27rako. Euskaltzaletasuna bultzatzeko, herri gogoa pizteko eta indar erakustaldia egiteko, Bilbao Arena euskaltzalez betetzeko deia egin du, pizkunde berri baten lehen txinparta bihur dadin.

Gu ere Kontseilukideak garenez, euskaltzaleon indar eta batasunaren erakustaldia batzera animatu nahi zaituztegu. 17:00etan hasiko da ekitaldia eta hainbat kultur gilek hartuko dute parte, tartean bertsolariek: Ane Labaka Mayozer eta Sustrai Colina Akordarrementerriak. Sarrerak salgai daude www.pizkundera.eus atarian 10 euroren truke.

Animatu, euskaltzaleon garaia da!



Euskalgintzaren Kontseilua osatzen duten eragileen ordezkariak Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan egindako agerraldian; tartean, Bertsozale Elkarteko kideak. //Euskalgintzaren Kontseilua

Eskolartekoari sintonia jarri nahi?

Gazteak bertsoaletzeaz gain, beste kultur diziplinetan ere sormena lantzeko aukera ematen du Eskolarteko sintonia lehiaketak. Gainera, musikaren bidez Eskolarteko balioak transmititu ahalko dira. Lanak martxoaren 10erako aurkeztu behar dira.

Haur eta gazteak jendaurrean kantatzeko, bertsoaletzeko, saretzeko eta arduratan zailtzeko antolatzen dugu Eskolartekoa Ikastolen Elkartarekin batera. 2026ari begira, dagoeneko aurre lanetan ari gara; izan ere, Eskolartekoak izena du, irudia du... baina sintonia falta zaio.

Horregatik, Eskolartekoaren sintonia lehiaketa antolatu dugu. Lehiaketaren oinarriak hauek dira:

- Sintonia bi iraupenetako bi artxibotan entregatuko da: 2 - 2:30 minutuko bat eta 30 segundokoa bestea.
- Ezin du izan Adimen Artifizialarekin egindakoa.
- Ezin du letrarik izan, ez behintzat protagonismo handiarekin.
- Sintoniak Eskolartekoaren oinarriak islatu behar ditu.

Azken puntu horretan aipatutako oinarriak, labur, bat-batean jendaurrean kantatzeko plazak eskaintzea, Euskal Herri mailako gazteen arteko harreman sareak sustatzea eta Bertso eskolan jarduteko akuilu izatea dira, horrekin bertso eskolen arteko elkargunea sustatuz.

Dena den, sintonia lantzeko oinarriak eta Eskolartekoaren beraren oinarriak www.bertsozale.eus atarian daude ikusgai, xehe-xehe.

Lanak aurkezteko azken eguna, martxoaren 10a

Sintoniak lantzeko martxora arteko tarte egongo da. Izan ere, lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 10a izango da. Bi formatu hauetan aurkeztu beharko dira lanak: .wav edo .mp3 formatuetan. Emailtzak sustapena@bertsozale.eus helbidera bidali beharko dira.

Martxoaren 24an jakingo da irabazlea nor den, alegia, Eskolarteko sintonia zein izango den. Horretarako, bost adarreko epai-mahaia eratu da, ondorengo (ehunekoak erabakimen mailari egiten dio erreferentzia, bozkak hartzen duen gazta zatiari):

- Eskolartekoan parte hartutako bertsolariak (%40)
- Ikastolen Elkartea (%20)
- Bertsozale Elkarteko Doinutegi batzordea (%20)
- Bertso saio musikatuetoako musikariak (%10)
- Bertsozale Elkarteko langile musikariak (%10)

Irabazleentzat, sari bat baino gehiago

Sintonia irabazlea aurkeztu duten lagunek Arantzako aterpetxean gau bat pasatzeko aukera izango dute, 'Ahots Baten' sormen egonaldian parte hartzeko txartela eta Eskolarteko finalean oholztan interpretatzeko parada. Honela, bertso gintzaz gain, bestelako adierazpideek ere izango dute lekua Eskolartekoan.





Puntua jarrita

NAIA ARRIZABALAGA ARRIETA

Oro har, sorpresak esango nizuke. Asko espero gabe jaso baitut Maddi Ibargurenen mezua: Maddi Agirrek puntua jarri dizu, erantzungo al diozu? Ulertzen zaitut, Maddi. Ederki dakit zure agendan zuriuneak bilatzea zaila dela, nirean bezalaxe. Hala ere, maiz batu gara Azkoitiko Kultur Etxeko egurrezko mikrofonoen aurrean, asteburuetan, larunbat goizetan. Gauetan ere bai, baina mikrofonorik gabe.

Larunbat goizetan, normalean guztiz libre dauzkadan asteko ordu bakarrenetakoak dauzkadanean, zerbaitetarako borondatea hartzea ez da kasualitatea izango. Erniarraitz Bertsozale Elkarteko bileretan, Gipuzkoako Herriartekoaren eskualdeko fasea diseinatzeko astearte buruzurietan gaueko hamaikak arte luzaturiko bilerak egitea ere ez. Kotxea hartu eta Euskal Herriko zenbait txokotara joatea ere ez, bertsoak entzutera. Zer ematen didan? Ba ez dakit, zerbait bai, beste ezerk emate ez didan zerbait. Saskibalo partida bat ikustera ez nintzateke Azkoititik Elizondoraino joango.

Galdera aldatzeko lizentzia hartu eta ausartuko nintzateke bertsoaritzak zein ematen didan erantzutera. Lagun talde bat, silaba errimatuak kantatzen dituen eta era berean, barne minak sendatzen laguntzen duena. Saio aurretik animoak bidaltzen dituen, saioetan gominolak ateratzen dituen zorrotik eta saio ondoren parrandak botatzeko prest dagoen lagun talde bat. Errealitate desberdinak, bizimodu desberdinak dituen baita adin tarte oso desberdinetako jendea ere: 70etik hasi eta nire bertso eskoletako ikasleak arte.

Oroitzapen bilduma mugagabe bat ere bai. Gogoratuko zara Amezketatik Zarautzera joan behar genuen hartan, "Naia hartu Gasteizerako noranzkoa!" esan zenidanekoa, ez Maddi? Barre mordo bat eta jende on asko.

Julene, hik ere probatu izan ditun Erniarraitzeko bilera amaigabeak eta makina bat aldiz esan zonagu elkarri "Gaur ere berandutu!". Zerk motibatzen hau bertsoari denbora eskeintzeko?

Koplak

2026an ez da Bertso Egunik egingo

Bertso agenda betea daukagu, eta, udazkenetik hasita, txapelketak ere batu zaizkio dagoeneko betea dagoen agendari. 2026an ere izango ditugu txapelketak: Xilabakoa urtea hastearekin amaituko da, ondotik etorriko da Arabakoa, eta udako oporraldiaren ostean 2026ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Hori gutxi ez, eta Gipuzkoako Herriartekoa ere 2026an izango da. Bertsoa plazetan bizi ikustea eta txapelketak ere bertsoaritzaz sustatzeko ekinbidean ikustea poztekoa da, baina leku gutxi uzten du agendan. Hori horrela, 2026ko Bertso Eguna bertan behera geratuko da; hori bai, indartsuago bueltatzeko. Beraz, ditugun hitzordu horiei guztiei ondo erantzuteko lanean arituko gara, eta 2027koa mimos prestatzen. Gainontzeko saio, emanaldi, txapelketa eta sariketatan elkar ikusten jarraituko dugu!

Poto-Finixa



Heriotzaz, beldurretik maitasunera.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bertsolekuak antolatu dira Gasteizen neguko oporraldian

Aurten lehen aldiz, Bertsolekuak antolatu dira 10 urtetik 12 urtera bitarteko gaztetxoentzat, Gasteizko Izaskun Arrue kulturgunean. Abenduaren 26tik 29ra bitartean izango da, 9:30etik 13:30era. Helburuak hirian lagun berriak egitea eta bertso munduan murgildu eta ondo pasatzeko aukera izatea dira, besteak beste. Izena emateko www.bertsozale.eus/araba atarian dagoen formularioa bete behar da. Plaza kopurua mugatua da.

